

Egun on, Nerea

Leonor naiz, gasteiztarra, baina Amsterdamen bizi naiz.

Larunbatero espero dut gogoz Nerearen aholkuak izeneko zure saioa entzutea. Ezer baino lehen, eskerrak eman nahi dizkizut egiten duzun programarengatik, eta izugarri pozten nau saioan parte hartzeak.

Lanagatik Amsterdamera bizitzera etorri naiz, eta etxea osoa kaxaz beteta dago. Ez dakit nondik hasi, eta ez hori bakarrik, bi egun barru etxean ere lan egin behar dut *freelance* bainaiz.

Beno, azalduko dizut zein den nire arazo nagusia. Arestian esan dudan bezala, etxean lan egin ohi dut eta, horretaz gain, bezeroak etxera etorri ohi dira nirekin egotera, lana azaldu behar diedalako. Etxean, egongelan lan egin behar dut, beste lekurik ez baitago. Hori dela eta, egongela txukun-txukun egon behar da.

Kontua da, alde batetik, nahiz eta txukuna izaten saiatu, lan-mahaia paperez beteta dagoela. Boligrafoen, errotuladoreen eta arkatzen bildumak izateaz gain, ordenagailua eta inprimagailua ere badaude. Bestetik, asteburuetan, lagunak afaltzera gonbidatzea gustatzen zait; orduan, egongelako mahaia erabili behar dut afaltzeko.

Badakit nire arazoa oso konplexua dela konpontzeko eta zaila izango zaizula aholku zehatzak ematea, ikusi gabe egongela, ezta lan-mahaia ere. Halere, galdetu nahi dizut ea aholku batzuk eman ahal dizkidazun jakiteko nola lor dezakedan oreka, astelehenetik ostiralera bulego bat izan dadin, eta, aldiz, asteburuetan egongela atsegin bat izatea.

Beno, Nerea, espero dut aholku baliagarriak ematea, batez ere denbora luzean ez bainago dena prestatzeko, baina horrek ez nau kezkatzen, zu profesional izugarria zarelako.

Besterik gabe, eskerrik asko, berriro ere, eta ondo izan!

Leonor